

# LOTSABAKOAI

Damaso, Pasiotarra



Asarre baten, abade jaunak  
meza-naisiko sermoian,  
trunoiak-eta bota zituan  
jantzi kontuen gañian.

Nor zan begitu barik, ezpazan  
jazten tamañu batian,  
iñoz etzala eleiz barrura  
sortuko aurrerantzian.

«Otz be ba-jagok!!! Olan jazteko  
«mojak» ete gaituk gero?

Jauna artzekotan jertsia jantzi,  
urtendakoan kentzeko.

Ezteritxo ala ondo orreri?

Ago ewreakin, lelo!!!

Uda erdian erri onetan

bero egiten jok, bero!!!».

Ango jarduna meza ondoan,  
ango astindu bearrak.

Arek kenduko ete eutsoezan  
begietako makarrak?

Beti kokolo, beti bardiñak  
erriko abade zaarrak!!!

Ainbesteraño eztau gorroto  
azeria be ollarrak.

Itxi zituen jaunartzeak be  
alde batera beingoan.

Len domekero altara aurrera,  
oiñ eleiz-ate ondoan:

Belaun batekin oztaz ikutu

hurra mezaerdikoan,

jantzi ariñak, berba ta barre...

Dantzea-edo gogoan.

Era orretan pasau zituen  
lau bostenbat illabete.

Bear lez jazten ziran neskeri  
barre ta destañak merke.

Azkenean be mutillengana  
jo eben kontseju eske.

—«Ez dautsue eskatuko auzoan  
jantzi kontuan ainbeste».

Entzuna egiñ, pozik gañera.

Lotsarik bez arpegian:

Egiñen barri emoten eben  
abadearen aurrian.

Orrenbesterik gertatu danik  
ez dakit Euskalerrian,

baña emen be makalik dabiz  
bildur-lotsak aspaldian.